

## Oker txikien garrantziaz



### ***Oker txiki garrantzgabeak***

Jatorrizko izenburua: *Piccoli equivoci senza importanza*

Egilea: Antonio Tabucchi

Itzultzailea: Fernando Rey

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Alberdani&Elkar

### KARLOS DEL OLMO

Luzaro, Antonio Tabucchi idazle sekretu halako bat izan da ia, literatur minak jotako lagunen erkidego sekretuko kideek elkar ezagutzeko erabiltzen zuten pasahitza. Lurrazpiko idazlea, *Pereirak dioenez* plazara agertu arte, beharbada hura haren idazlanik biribilena izan ez arren, irakurletza zabalago batenganaino heltzeko osagai guztiak baitzituen, zenbateraino eta Marcello Mastroianniren azken pelikula bihurtu arteraino. Italiar idazle honek gazte-gaztetatik Portugal maitasun sutsua izan dio, hango literaturak —Pessoak— piztu zion grina bitarte zela. Eta, halaxe, Fernando Pessoaen obra eta nortasuna Europan aditzera emateko lan ikaragarria egindako laguna da Antonio. Lantzean behin, Pessoa orakulu moduan darabilela ere pentsa liteke.

Tabucchiaren lehenengo irakurraldietan espainiar literaturak garrantzi handia izan zuen, On Kixote lagun, Galdós, Lorca, Borges, Pirandello, Gadda, Sciascia, Pasolini, Svevo, Kafka, Machado... izan zituen bidaide eta gogaide Pessoa deskubritu arte. Eta, nolana ere den, literatur prestakuntzaz, narratzailea da, batez ere. Berberak aitortu izan duenez, eskizofrenia kultural eta linguistikoko moduko batean murgilduta bizi da, Portugaletik Italiara doan autobide zabaletik abiada bizi bezain lasaian doalarik.

Maitasunaren kontzientzia noraezekoa da bizitzaren bidaia ulertzeko, eta bidaien eta maitasunaren gairik gabe nekez ulertuko dugu *Oker txiki garrantzgabeak* idazlana, pertsonaia batek dioenez, lotsagarria delako maitasuna ezagutu ez izana. Liburuan bidaiak dira giltza, idazleak, ordea, inoiz ez omen du bidaiarik egin inspirazio bila, lanak behartuta baino. Gerora, idazten hasterakoan, gomutara etortzen zaizkio bidaldiok iradokitakoak, bakarka, isolaturik geratzen denean. Nolanahi ere den, Tabucchi beste idazle ospetsu askoren biziera frenetikotik, mundua jateko gura asegaitz horretatik urrun bizi ei da, harako "gizon bare" haren antzera. Eta horrexek azaldu dezake, seguru asko, eskuartean dugun narrazio bildumaren erritmoa ulertzeko gakoa. Eleberriko leku eta eszenategiak ezagunak zaizkigun arren —Euskal Herriko zenbait herri ere agertzen dira—, denbora aldetik, kronologia lausoko ipuinak direla esan liteke, idazleak baiesten duenez, literaturak kronologiarik ez duelako.

Tabucchiaren mundua begiradaren bidezkoa da, pinturak, museoak, arkitekturak, paisaiak zama handiagoa dutelako bestelako osagaiek baino; hala, emozio estetikoak begietatik helarazten digu idazleak, gainerako zentzumen iradokizunak lanbrotuago daude, usaimena, entzumena eta dastamena lantzean-lantzean aipatu arren. Liburuan, bestalde, den-dena esaten ez digun susmoa izaten dugu, gauzen ifrentzuan zerbait ezkutu, itzal artegarri bat balego legetxe. Ez da harrigarria, Pessoaen heteronimoak hainbeste maite dituen idazleak gudan ni bat baino gehiago dagoela uste duenez gero, bizitzan pertsona bat baino gehiago garelako inpresioa izan ohi dugula, geure bizialdia beharbada ez dela guk uste ohi dugun modukoa. Alderdi ezezagun horren

beldur garenez gero, ordea, maskarak erabili ohi ditugu, babes moduan. Bizitza labirinto moduan aurkezten digu, hura zeharkatzerakoan ezagutzen ditugun pertsonak markatu egiten gaituzte eta, hala, bide buru bihurtzen dira, zedarri biziak. Horrelaxe dabilta liburuko pertsonaia gehienak, labirinto irteera topatu guran... beharbada ostera ere labirinto barrura sartzeko.

Fernando Reyren itzulpena oso egoki gertatzen da Tabucchiren erritmo biziaren itxurazko egonkortasuna ordaintzeko, erritmoan etenik sortzen ez duelako. Irakurlea berehala konturatuko da hizketa adierazkor eta goxoa lortzeko itzultzaileak egindako ahalegin eskergaz. Eta hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Harrigarri samar gerta dakiok inori euskal bilduma berean, segituan, egile beraren bi liburu agertu izana, batez ere idazlea bizirik dagoela eta aurreko urtean beste argialetxe batek *Pereirak dioenez* bikaina argitaratu ostean. Baina bizitzan bezala, literaturan ezer ez da kasualitate hutsa edo, osterantzean, den-dena kasualitate hutsa da. Inongo istoriorik ezin amaitu omen daiteke, benetan gauza guztiek zabalik dirautelako, nola bizitzan, hala literaturan ere. Halere, gaur ez nauzu ni etorri, Antonio Tabucchi baino, erraten zautan Fernando Pessoa...